

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zarraluqui kontseilariak Tafallako Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren egoitza berria bisitatu du haren sorreraren 25. urteurrenean

1987. urtetik 2.600 espediente izapidetu ditu Nafarroako Gobernuak emandako 18,8 milioi euroko diru-laguntzarekin


Viernes, 22 de febrero de 2013

Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui-k Tafallako eskualdeko Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren (ORVE) egoitza berria bisitatu du. Kokapen berri horretan (Tafallako Goyena kalea, 22 behea) bere sorreraren 25. urteurrena ospatu du.

Kontseilariarekin batera izan dira: Lurralde Antolaketa, Mugikortasun eta Etxebizitzako

zuzendari nagusi José Antonio Marcén; Tafallako alkate Cristina Sota; ORVEren lehendakari eta zuzendari Luis Valencia eta Tomás Urmeneta, hurrenez hurren; arreta ematen dien udalerrietako alkate eta ordezkariak, jada badiren ORVEren beste zortzi bulegoetako langileak (Agoitzeko Pirinioak, Iruñerria, Iruña, Baztan Bidasoa, Estellerria, Sakana, Zangozako Pirinioak, Erribera), eta Nasuvinsako ordezkariak.

Tafallako eskualdeko Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa 1987an sortu zen Nafarroako Gobernuaren eta Tafallako Udalaren arteko lankidetzak-akordioaren bidez, hirigune historikoa birgaitzeko planak lantzeko xedearekin, Tuteran eta Lizarrako eredu jarraiki eta 1986an sortu zirenak. 1990ean udal-talde modura egituratzen da, toki-erakundeek proiektuan protagonismo handiagoa izanik. Une horretan, hala nahi izan zuten udalek ORVEren sartu ziren beren udalerrien obra nahiz hirigintzako espedientei dagozkien arreta eta jarduketak hobetzeko. 1997tik aurrera, bulegoak eskaintzen zituen zerbitzuak zabaldu egin ziren, Hirigintzako Aholkularitza Zerbitzua sortuz. Gaur egun, Tafallako eskualdeko ORVEren jarduketa-eremua zonaldeko [32 udalerritara](#) zabaltzen da, eta bertan 6 lagunek egiten dute lan.



Zarraluqui kontseilaria eta Tafallako alkatea (irudiaren eskuinaldean), Tafallako ORVEren egindako bisitan.

Bere agerraldian,
Zarraluqui kontseilariak ziurtatu
du "biztanleei adorea emateko
unea dela birgaitzean konfiantza izan dezaten haiek dituzten
etxebizitza-beharrei erantzuteko baliabide modura" eta, aldi
berean, "gure hirien ingurumen-iraunkortasunari laguntzen dio".

1987an sortu zenetik, ORVEk 2.600 espediente baino
gehiago izapidetu ditu, urtean 105 batez beste. Urte horietan,
Nafarroako Gobernuak 18,8 milioi euro jarri du diru-laguntzetan
(738.550 euro urtean batez beste), eta diru-kopuru horretaz
3.842 etxebizitza baliatu dira guztira, etxebizitza bakoitzeko
5.075 euroko batez bestekoarekin.

Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoak, alde batetik, administrazioarekin dauden kudeaketetan hurbiltasun nahiz arintasun handiagoa dakarren tresna dira; eta bestetik, arlo horretan herritarrari arreta errazten diote, eraikinak birgaitzeko arloan toki-erakundeen eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzak handiagoa izanik. Aldi berean, eskualdeko identitatea sendotzen da eta hura osatzen duen udalerrri bakoitzarena. Abantaila gehigarri modura, ORVERi esker, bizitoki-ondareari buruzko benetako kontrola egin daiteke, eta partikularrek nahiz Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Zerbitzuaren bidez burutzen duten birgaitzean egindako inbertsioei buruzko jarraipena egin daiteke. Alde ekonomikoan, tokiko jarduera ekonomikoa errazten dute hornitzaileekin eta baita hurbileko esku-lana ere. Bizigarritasun-ikuspegitik, narriatutako hiriguneen errekupeazioa errazten dute, hiri-kalitatea, bizi-kalitatea eta auzotasuneko itxaropenak hobetuz.



Zarraluqui kontseilaria Tafallako ORVEN sartuta dauden udalerrietako zinegotziekin.